

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2026ko urtarrilak 9 · 1380 zenbakia



KIROLA DA SARIA

MERKEALDIA

lehen 239€

2MÓ 219€

betaurreko progresiboak

batzuk eguzkitakoak izan daitezke

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 93/25

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



hitzordua eskatu

www.multioplicas.com





Ongizaterako eta atsedenerako unea, **Eibarren** bertan

Eibarko bihotzean, **Orbea Spa & Wellness** atsedenari, ongizateari eta osasunaren zaintzari eskainitako gunea modernoa da. Eguneroko erritmotik deskonektatzeko eta norberarekin berriro konektatzeko diseinaturia.



**SPA
ZIRKUITUA**



**MASAJEAK ETA
TRATAMENDUAK**

Azken urtean, Orbea Spa & Wellness-en instalazioak eguneratu eta hobetu dira esperientziaren kalitatea areagotzeko, erosotasuna zein ongizatea lehen lerroan jarritz.



Urkizu Pasealekua, 11



943 03 00 15



orbea@equiponeo.com

neo

Jarraitu gaitzazu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



Jarraitu aktualitatea gure webgunean eta sare sozialetan



Mikel Lizarralde irabazi du 2025eko Eibarko Kirol Sari Berezia. Lehiaketa eta marketatik haratago doan jarduera izanik, kirola bizitzeko duen moduagatik eta horrekin igortzen duenagatik jaso du errekonozimendua Lizarralde.

www.etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Irati Alvarez, Ekhi

Belar, Ander Fernandez, Silbia

Hernandez, Irune Jaio eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Irune Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Txapliguek Eibar estaltzen dutenean...

Artikulu honetan ez naiz lege-artikuluaz arituko. Ezta salaketez, zigorrez edo prozedurez ere. Gertutik edozein ospakizunetan bizi ohi ditugun txapliguen burrunbeez baizik.

Eta Eibarren ere zaratak ez du atea jotzen; bera bakarrik barruraino sartzen da. Gabon Zaharretan, esate baterako, afaria goxo-goxo doanean eta mahaian eserita gaudela iristen dira lehen ezta: elkarrizketak eten, leihoak dardarka jarri eta txakurrak mahai azpian beldurak jota.

Askorentzat “-betikoa da” edo “-ez larregi exajeratu”. Galdera, ordea, beste bat da: noiz bihurtu dira zarata eskubide eta lasaitasuna edo isiltasuna herritarron pribilegio?

Eibarrek jakin badaki zer den zaratarekin bizitzea, baina baita isilaraztea ere. Industria astunaren arrastoak atzean uzten jakin izan badugu, bizi-kalitatearen alde, zergatik ez dugu berdin egiten ospakizunetan? Zergatik kostatzen zaigu horrenbeste txapliguen erabilera zalantzan jartzea?

Ez da festa amaitzeko deia; aitzitik, arduraz ospatzekoa da. Alternatibak badaude, borondatea da falta zaiguna. Eta borondatea falta zaigun bitartean, zaratek, ezta deia eta txapligoek estaltzen jarraituko dute bene-benetan garrantzitsua dena: elkarbizitza.

Patrizia Marzana Uribarri

Hortik esanak



Bikoiztaileok kalera ateratzeko ordua da. Publikoak jabetu behar du ikusten dituen saioen atzean pertsonak daudela, bere maitasuna eta ilusioa bikoizketan jartzen duten langileak. Akaso iritsiko da garai bat non adimen artifizialak perfekzio moduko bat lortuko duen; gaur egun nabaritzen da bikoizketa bat makina batek eginga denean. Baina, zoritxarrez, perfekzio horretara iritsiko dira. Eta jendeak, etorkizunean, aukeratu egin beharko du sentimendurik gabeko robot batek sortutako ahotsaren eta arima eta gogo guztia jartzen duten pertsonen ahotsaren artean. Espero dut ikusle horiek pertsonen bikoiztutako produktua aukeratzeko. Testuinguru horretan, ekitaldi berezi batzuetara joaten hasiak gara bikoiztaileak. Garrantzitsua da jendeak gu ikustea.

GAIZKA SORIA, bikoiztailea

Gaur egun han eta hemen entzuten eta ikusten dut: “Ez daukat dirurik”. Baina asteburua etxetik kanpo pasatzera joaten dira. “Ez daukat dirurik”, baina larunbatean juergan irteteko ez dute aitzakiarik jartzen. “Ez dut dirurik”, baina modako zapatak erosten dituzte. “Ez dut dirurik”, baina udako oporrak antolatzen hasiak dira jada. Susmoa daukat gure posibilitateen gainetik ez ote garen bizi. Etxea ordaintzeko hipoteka, kotxea ordaintzeko ere bai, baita oporretara joateko ere. Puntu honetara iritsita, garai batean oporretara ez joatea normala izan zitekeen bezala, gaur egun ia derrigorra da gutxienez urtean asteburu bat etxetik kanpo pasatzeko. Kasu horretarako, nekez entzun dut “ez daukat dirurik”.

KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA, herri-kirolaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIXOKOR → Astuna, pisu handikoa. “Zuen ondokua pixokorragua da ha baiño”.

PIXOTSU → Astuna, pisu handikoa. “Berba pixotsuak harek esan dittuanak”.

“Pixairazu, Txomin, libardi bat iztarretik”.

PLA/PLAS → Belarriondokoaren onomatopeia. “Behin baten, Edurnek, holaxen laguna eta, dantzarako “ez” esan etsalako ikutu ero egin ei etsan, eta plaa!, mutillorri zaplatekua emon etsan! Ha zan atrebidua!”

1913

Armeria Eskolako
lehen harria
ipintzen

Urte horretako urtarrilaren 6an inauguratu zituzten Armeria Eskola eraikitzeko lanak. Lehen harria Fermin Calbeton ministroak ipini zuen, zezen-plazaren inguruko lurretan, hasieran han egitea aurreikusi zen-eta. Ondoren, 1913ko ekainaren 13an, Isasi gainean eraikitzea erabaki zuten.

EBARKO ARMERIA ESKOLA



Farmaziak

- BARIXAKUA 9**
- EGUNEZ | Barandela** (Ziriako Agirre, 4)
- ZAPATUA 10**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- DOMEKA 11**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberría, 7)
- ASTELEHENA 12**
- EGUNEZ | Elortza** (Juan Gisasola, 18)
- MARTITZENA 13**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustín, 3)
- EGUAZTENA 14**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- EGUENA 15**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarría, 4)
- BARIXAKUA 16**
- EGUNEZ | Zulueta** (San Agustín, 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jabier Viteri Andikoetxea**. 75 urte. 2025-XII-23.
- **Miren Urkidi Mandiola**. 94 urte. 2025-XII-25.
- **Elena Franco Albizuri**. 102 urte. 2025-XII-30.
- **Josefina Garcia Alvarez**. 72 urte. 2026-XII-31.
- **Josefa Davila Davila**. 92 urte. 2026-I-04.
- **Maria Rosa Aramburu Telleria**. 79 urte. 2026-I-06.



Eibarko pentsiodunak, Gasteizen egindako azken mobilizazioan. EIBARKO PENTSIONISTEN TALDEA

Zortzi urteko borroka ospatzeko manifestazioa egingo da urtarilaren 17an

Urtarrilaren 15ean zortzi urte beteko dira Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua hasi zela eta, zortzi urte hauetako borroka gogoratzeko, Eibarko Pentsionisten Taldeak manifestazioa deitu du urtarilaren 17rako (zapatua). "HEL aurrera. Pentsio duinak guztientzat" goiburuari jarraituta egingo den mobilizazioa Untzagan hasiko da, 12:00etan. Ondoren, 14:30ean herri-bazkaria egingo da Errebal Plazan.

SILBIA HERNANDEZ

Eibarko pentsionisten taldetik adierazi dutenez, "2018ko urtarilaren 15 hartan, pentsiodunak nahikoa dela esan genion PPK lau urtez ezarritako pentsioen murrizketei. Murrizketa horiek erosteko ahalmenaren galera eragin zuten, eta egoera hori onartezintzat jo genuen. Urte berean, pentsioen %0,25eko igoera lotsagarria haus-tea lortu genuen. Era berean, pen-

Manifestazioa 12:00etan irtengo da Untzagatik eta, ondoren, herri bazkaria egingo da Errebalen

tsioak blindatzeko eta Estatuko Aurrekontu Orokorren barruan mantentzea bermatzeko aldarria bizirik mantendu genuen, eta hori azkenean 2021eko abenduan lortu zen, pentsioen balio-eguneratzean KPIaren aplikazioa bermatuz".

Zortzi urte hauetako borrokari esker aurrerapauso batzuk eman badituzte ere, argi daukate oraindik ere borrokatzen jarraitu beharko dutela, "milaka pentsiodunen egoera konpontzeko, bereziki emakumeen kasuan, genero-arrakalaren ondorioak jasaten jarraitzen baitituzte. Arazo larri horri aurre egiteko, EA Eko pentsiodunen mugimenduak Herri Ekimen Legegile bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, 142.000 babes baino gehiago bildu zituen. Hala ere, EA Jk eta PSEk baztertu egin zuten, parlamentuan eztabaidatzeko aukerarik eman gabe. Gure proposamena onartu izan balitz —pentsio baxuenak Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzea—, 100.000 pentsiodun ingururen egoera konponduko litzateke, gehienak emakumeak. Zortzi urteko mobilizazioen ondoren, pentsiodunen mugimendutik konbentzitura jarraitzen dugu, lortutako garaipenak gorabehera, kalean jarraitu behar dugula gure eskubidetzat jotzen duguna aldarrikatzen: pentsio duina denontzat, oinarritzko beharrak estaliz hil amaierara iritsi ahal izateko".

Pentsiodunek manifestazioaren ondoren egingo den bazkarira joateko deia egin dute: "Guztion presentzia izatea gustatuko litzauguke. Txartelak Guridi tabernan erosi daitezke. Gogorarazi nahi dugu, halaber, datorren astelehenean, urtarilaren 12an, 12:00etan, Untzaga plazan berriro hasiko ditugula kontzentrazioak".



Magia, ilusioa eta hotza izan dira protagonista aurtengo kabalgatan

S.H. Aurten ere Eibarrera etorri dira Hiru Errege Magoak, Gabonetako oporrak amaitu aurretik azken opariak banatzeko. Gau magikoaren aurretik, arratsaldean ederto pasatu zuten Ipurua kiroldegian, Eibarko Nele Dantza Eskolak, Ballet Eibarrres-ek, Kaxak, Koak eta Ipurua Gimnasia Erritnikoko taldeek eskainitako ikuskizunean. Ondoren, Untzagatik abiatu zen karroza, hotzari aurre eginez. Ane Ferrer eta Leire Kareaga Eibarko Udal Margo Eskolako irakasleak, eskolako ikas-

le gazteen laguntzarekin, karroza apaintzeko lanean aritu dira aurten ere; oraingoan Ekialdera begira ipini dira, arabiar dekorazioarekin janzteko. Karroza herrian zehar kalejiran ibili zen, Eibarko Musika Bandak, pajeek eta hartz erraldoiek lagunduta. Eta, Untzagara bueltan, udaletxe barruan hartu zituzten haurrek azken orduan idatzitako gutunak. Dantza ikuskizuneko eta kalejirako argazki-bilduma www.etakitto.eus webgunean ikusi dezakezue (Argazkiak: Eibarko Udala).




Eskualdeko Independentzia Eguna ospatuko da Deban

S.H. Ernai gazte antolakundeak *Debarrenatik Independentzia* eskualde mailako jaialdia antolatu du urtarrilaren 31rako Deban, egun osorako egitarauarekin. Eguerditik hasiko dira, 12:00etan kultur etxean egingo den *Independentziaren borroka historian* zehar izenburuko hitzaldiarekin. Ondoren, 14:30ean, Arranon bazkaria egingo dute (Eibarren, Depor tabernan erosi daitezke bonuak). Bazkalosteia amaituta, 19:30ean karropoteoa hasiko da eta, amaitzeko, 22:00etan kontzertuak hasiko dira Debako gaztetxean: Begibide, Harrikada eta DJ Berbi arituko dira. Antolatzaileek adierazi dutenez, “joera erreakzionarioak areagotu diren azken hilabete honetan, ezinbestekoa ikusten dugu estatu independente, feminista eta sozialista bat aldarrikatzea, eta horretan ibiliko gara gu urtarrilaren 31n, Deban”.

ek!

Zure publizitatea
herriko aldiarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



XABALO
2024

F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA

Urte Berri On!



Asfaltatze-lanak egingo dira San Kristobal, Polonia Etxeberria eta Urki kaleetan

S.H. Eibarko Udalak herriko kaleetako asfaltoa hobetzeko daukan planaren bitartez, datozen asteetan herriko hiru kaleetan (San Kristobal, Polonia Etxeberria eta Urkin) egingo dira asfaltatze-lanak. Berritze-jarduketa horiek San Kristobalen (Sostoatarren eta Ubitxaren arteko bidegurutzean), Polonia Etxeberrian (24. zenbakiko pego-

raren eta Antonio Iturrioz kalearen artean) eta Urkin (23. eta 21. pegoaren artean) egingo dira. Guztira, 4.500 metro koadrotik gorako azalera asfaltatuko da. Udaletik jakinarazi dutenez, zortzi behar-ginek osatutako taldea arituko da zortzi astez lanean, eta aurrekontua guztira 199.380 eurokoa izango da, BEZa barne.

1 Barrutia Bizitegi-Merkatuko Tentsio-Eremu izendatzeko plana abian

S.H. Eibarko Udalak, IKEL Research & Consultancy aholkularitza-enpresa espezializatuarekin lankidetzan, proiektu estrategiko bat jarri du abian, “udalerrian etxebizitza eskuratzeko orduan dagoen egoera sakon aztertze”¹. Horrela, Eibarko Udalak diagnostiko bat eta ekintza-plan bat bultzatu ditu, 1 Barrutia Bizitegi-Merkatuko Tentsio-Eremu izendatzeko: “IKEL Research & Consultancy aholkularitza-enpresarekin batera egingo den azterlanak aukera emango du hiru urtera begirako neurri zehatzak hartu eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean eskabide formalak aurkezteko”, adierazi dute. Udaletik jakinarazi dutenez, ekimenaren oinarria aurretik egindako azterlan bat da, “berresten duena 1 Barrutiak bete egiten dituela legeak tentsio-eremu izendatzeko ezarritako baldintzak, nahiz eta udalerrriak bere osotasunean ez dituen baldintza horiek betetzen. Zehazki, eremu horretan alokairuaren prezioa %20,3ko igo da azken bost urteetan eta, hori horrela, lege-atalasearen gaineretik dago”. Proiektuak hiru fase izango ditu: lehenengoan, diagnostiko sakon bat egingo da, besteak beste etxebizitza babestuen eskaria eta alokairu eta salerosketako merkatuaren ezaugarriak aztertze; bigarren, prozesu parte-hartzaile bat abiatuko da, udaleko hainbat sailekin; eta, azken fasean justifikazio-memoria bat idatziko da, legearen araberrako baldintzak betetzen direla egiaztatuz. Dokumentu hori izango da 1 Barrutia eremu tentsionatu izendatzeko eskaeraren oinarria.



Venezuelaren burujabetasunaren aldeko elkarretaratzea

S.H. Amerikako Estatu Batuak, Trump presidentearen gidaritzapean, Venezuelaren aurka egindako eraso militarra salatze, eta Venezuelaren burujabetzaren alde azaltzeko elkarretaratzea egin zen zapatuan, urtarillaren 3an Eibarren.



END plataformak sinadurak jasotzen jarraituko du urtarileko asteburuetan

S.H. Etxerik gabeko pertsonen aldeko END plataformak jakinarazi du 2026an sinadurak jasotzen jarraitzeko asmoa duela “kaleko egoeran dauden pertsonak kalean lo egitera behartuta egon ez daitezzen”. Azaroan zabaldutako manifestuan kalean dauden pertsona guztiei harrera egiteko dispositibo bat abian jartzea exijitzen diete Eibarko Udal ordezkariak. Azaldu dutenez, oraingo ahalegina Eibarraren egingo dute, baina aurrerago Debabarreneko gainerako herrie-

tara zabalduko dute ekimena. Azpimarratu dutenez, ez dute loturarik erakunde politikoekin, “independenteak gara eta horrela jarraitu nahi dugu”. Abenduan egindako bideari jarraituko diote urtarilean ere eta, horrela, hilabete honetan ere sinadurak batzeko mahaia ipiniko dute kalean, Untzagan, zapatuetan 19:00etatik 21:00etara, eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. Orain arte, manifestuari babesa adierazteko 1.288 sinadura inguru lortu dituzte.

Martxoaren 28an ailegatuko da 24. Korrika Eibarrera, 21:00ak aldera

S.H. Aurtengoa Korrikaren 24. edizioa izango da. Martxoaren 19an Atharratzen hasi eta 29an Bilbon bukatuko da euskararen aldeko korrikaldi jendetsua. Martxoaren 28an, zapatua, pasatuko da Korrika Eibartik. Iluntzean Elgoibartik Soraluzera joango da, eta, ondoren, Soraluzetik Eibarrera sartuko da 21:00ak aldera, antolakuntzak adierazi duenez. Eibar gurutzatuta, Ermura eta Durangaldeara abiatuko da. Debabarrena eskualdeko kostaldeko herrietatik (Itziar, Deba eta Mutriku) martxoaren 25ean, eguaztena, pasatuko da, arratsaldean partean.



ASUA
CARBURANTES
asuacarburantes.com

GASOLINA-ZERBITZUGUNE
modernoak, eskuragarria
eta erregaia azkar eta
merke hartzeko pentsatua



FIDELTASUN TXARTELA WEBGUNETIK ESKURATU DAITEKE

- **Kalitate** goreneko erregaiaik
- Kalitate-**prezio** erlaziorik onena
- Ordaintzeko **malgutasuna**
- Eguneko **24 orduetan** martxan

SARBIDE ERRAZAK

- Eibarko erdigunetik
- Ermutik
- Elgoibartik (bariantetik)



Asua Erreka 11
Eibar



Ahari-jokuak ez ezik, harri-jasotzea eta idi-demak ere zezen plazan egiten zituzten. INDALICIO OJANGUREN FONDIA (GURE GIPUZKOA)

Ahari-jokoa Eibarren. “Narru” baserriko ahariak, ezagunak. Herri-kiroletarako zaletasun handia; jai egunetan egoten ziren horrelako ikuskizunak.

Herri-kirolak Eibarren: ahari-jokoak

Alejandro Lizarriturri Barrutia
(1914 – 2009)



Aita Astelena frontoiko txartel-saltzailea zen eta ondorioz Alejandrok ume-umetatik ezagutu ditu bertan egiten ziren oilar-borrokak, dantzaldiak eta bestelakoak. Gerra Zibilean parte-hartze zuzena izan zuen: txofer bezala lehenik, gerrako parteak batera eta bestera eramaten geroago. “Batallon de Trabajadores”-en egondakoa. Urteak pasa eta orduko gazi-gozaok zertxobait arindu zirenean, garai gogor hartan bizitakoak liburuxka batean idaztea erabaki zuen.

Alejandro Lizarriturri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

Ni orduan gaztia nitzan artian. Gero, baita “Pelea de carneros. Había muchos encuentros no disputados en aquellos tiempos. El caporal era el carnero de Narru, del caserio de dicho nombre de Arrate-Balle”. Osea, horrek kontatzen dittuan zer guztiok. [...] Narru?. Bai. Asko egoten zan adari-jokua ta zera hor. Bueno, hau “plaza de toros”. [Eta hau, ze egoten zian jaixetan, ez? Harri-jasotzaillak eta...] Bai, bai, jaixak... lantzian behin egoten zan, ezta? [Ta jente asko juaten zan ikustera?] Asko, basarritarra ta zera, jentia, asko. Ta dirua jokutzen zan, hor zeuan dirua be ta. Hor asko jokutzen eben. [Ta ze izaten zan, San Juanetan, esate baterako? Edo San Andresetan ta San Juanetan edo...?] Orduan baiño... osea ya... zera, San Juanetan-ta ya “mas festejo”, mas... zera, baiña hau serixuaua izaten zuan. Diru asko daon lekuan-ta ez jok, bihar bailerik eta zerik. Ez dakik? Horrek egun espezialak (...).

BEHERAPENAK

E I B A R R E N

#EibarrenBadakagu

xAre
beherapenak

Zuloagatarren, 1
943 536 764

📱 xareebar
www.xareebar.com

Ibarkurutze, 6
info@irritsamoda.com 943 12 71 06

iRRITSA

BEHERAPENAK

LENTZERIA MERTZERIA
TXUKUNA
943 821 308
Eulio Garate, 1

%20 eta %30-eko **BEHERAPENAK**

umea
beherapenak

Errebal, 16 📱 943 20 31 64

T. Etxebarria, 19
943 20 76 51
cedrymoda@gmail.com

Cedry
azken aukerak
beherapenetan

Kopina %50era
arteko
BEHERAPENAK

San Agustin, 3 📱 f 943 20 41 81

#EibarrenBadakagu

“Kirola nire bizitzaren parte da, izan da eta espero dut hemendik aurrera ere izatea”

ARRATE GUTIERREZ • ‘Publikoaren Saria’ 2025eko Eibarko Kirol Sarietan



Herritarrei ahotsa eman nahi izan diegu Eibarko Kirol Sarietan, eta gure webgunearen eta sare sozialen bitartez eurentzat aurtengo kirolari nabarmena zein izan den esateko aukera izan dute. Kirolari hori Arrate Gutierrez dela erabaki du herriak (lehia bizia egon da pare bat kirolariren artean) eta berak jaso zuen Publikoaren Saria abenduaren 31ko galan.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Elkarrizketaren
BIDEOA



Arrate Gutierrezen bizitza ezin da ulertu kirol barik. Oso gazte hasi zen kirolean, korrika egitea ere arraroa zenean (are gehiago emakumeen artean), eta gaur egun ez du egunik pasatzen kirola egin barik. Etxean ere kirol giroa da nagusi eta bere bigarren etxean, Eibarko Klub Deportiboan, orduak eta orduak pasatu eta pasatzen ditu. Bejondeizula Arrate!

Herriak berba egin du eta zuri eman dizu Publikoaren Saria. Zer sentitzen duzu horren aurrean?

Publikoak bozkatzan duenean jokoan sartzen dira nork duen lagun gehien, nori ematen zaion bultzada gehiago... eta kasu honetan, txikiteoan hasitako tontakeria batengatik, lagunaren arteko istorioa dela garbi daukat. Lehen aldia izanik, agian jende asko ez da enteratu ere egin bozketa hori zegoenik.

Zuretzat kirola zer da? Nolako tokia betetzen du zure bizitzan?

Kirola nire bizitzaren parte da, izan da eta espero dut hemendik aurrera ere izatea. Denbora-pasa da eta ondo sentitzen naizen modua, konpetizioa eta abar baztertuta. **Etxean kirol giroa da nagusi (Iñaki Osoro senarra Eibarko Klub Deportiboko presidentea da, eta Pello eta Txomin semeak maila altuan lehiatzen dira hainbat**





probatan). Batak besteari eragiten edo bultzatzen diozue kirola egiteko?

Beti ibili izan gara kirolean eta hori da semeek jaso duten eredua. Gainera, ez kirol bakarrean aritzea bakarrik, baizik eta denetik egitea. Hori erakutsi diegu eta hori egin dute modu oso ezberdinetara. Eurena konpetizioa da, mundu horretan daude sartuta. Ni, aldiz, horren aurkakoa izan naiz beti, baina jarraitzen dut. Strava (kirol-jarduerak erregistratzen dituen aplikazioa) egiteko esaten didate, baina nik ez dut nahi. Inork ez du zertan jakin zertan nabilen. Kontu pribatua egin daiteke, baina berdin zait, ez dut nire buruarekin ere lehiatu nahi. Nire helburua kirola egitea da, eta kitto.

Noiz heldu zen kirola zure bizitzara?

Txikia nintzenean ez zen arrunta kirola egitea, are gutxiago emakumeentzat. Beti gustatu izan zait mugitzea eta, ahal den neurrian, egin dut. Bat-batean, 80ko hamarkada inguruan, sasoi horretan footing-a esaten zitzaiona egiten hasi nintzen (gaur egun running esaten zaio). Etxean anai batek egiten zuen eta Roberto Agirregomezkorta kale berekoa zenez, Torbio Etxebarriakoa, eurekin korrika egiteko aukera izaten nuen. Gero, lagun-taldea sortu genuen, bikotearekin hasi ginen eta mendira jo genuen. Mendi-ibilaldiekin hasi ginen, eskalada egiten, eskian... Eski modalitate guztietan aritu izan naiz: fondoan, pistan, trabesian... Chamonix-Zermatt eski-trabesia egin genuen 70. hamarkada inguruan. Denetik probatu nuen, gustatu zitzaidan, kirol batetik bestera pasatu nintzen eta aurrera.

Polita da kirol bat egitera bakarrik ez mugatzea.



Eibarko Klub Deportiboaren egoitza bigarren etxea da Arrate Gutierrezentzat. EKHIBELAR

Gaur egun ere, kirol bat baino gehiago egiten dut. Deportiboaren 100. urteurrena zela eta, mendi bat ehun aldiz igotzeko erronka bota zuten eta egin nuen, baina 101. urteurrena iritsi da eta berriz ere egin dut. Eta uste dut oraingoan ere martxa berean jarraituko dudala. Mendira sarri joaten naiz, baina ez erronka berezirik dagoelako. Bestalde eguraldi hobea egiten duenean, bizikleta hartzen dut. Udan korrika, bizikleta, mendia... Parean jausten dena egiten dut.

Lehia gustatzen ez zaizula esan duzu, baina zure buurari erronkak jartzen dizkiozu?

Erronkak egitea baino, kontua beste bat da. Deporren proposamen hori jarri zuten eta, mendian ibiltzeko ohitura dudanez, egin nuen. Chamonix-Zermatt, bestalde, klasiko bat da eski-trabesian eta egin beharreko bat, modu batean esatearren. Lagun-taldea elkartu ginen eta egitea erabaki genuen Aste Santuko oporrak aprobetxatuta. Horrelako gauzak, baina, beste ekintza batzuekin lotzen ditugu. Adibidez, uste dut inoiz ez garelako oporretan joan kirola egitea kontuan eduki gabe. Orain dela urte asko, Ibilbide Transahariarra egitea bururatu zitzaigun. Gabonetan joan ginen eta autoan egin genuen, baina Aljerian eskalatze tokiak daude eta eskalatze aprobetxatu egin genuen.

Klub Deportiboarekin lotura estua duzu. Zer da klubaren zuretzat?

Betiko klubak, beti izan naizena, beti parte hartu izan dudana, bai kirola eginez bai Kezkan eta gauza guztietan, eta jarraitzen dugu! Gure bigarren etxea da, nolabait esateko.

Deportiboak 102 urte beteko ditu aurten eta, adin horretara heltzeko, lan handia egin beharra dago. Barrutik bizi duzunez, kontaiguzu nolako lana egiten den bertan. Klub Deportiboaren barruan ez dakit zenbat batzorde dauden, asko, eta lan asko egiten da. Jende askok eta askok, isilean, ekintza asko egiten ditu. Kalean ere ikusten da hori. Adibidez, abenduaren 31n, ...eta kitto!-k ematen dituen Eibarko Kirol Sarien ondoren, San Silbestre egiten zen Klub Deportiboak antolatuta eta partaidetza handia izan zuen. Beraz, jendeak erantzuten du Deporrek egiten dituen ekintzetan.

Urte asko dira, gizartean aldaketak daude... Partaidetzari dagokionez batzordeetan gora-beherak egongo dira, ezta?

Bai, eta partaidetza ezberdina da batzorde batetik bestera. Denek dute bere martxa, baina bakoitzak bere mailan. Adibidez, Kezka dantza taldea da jende gehien batzen duen batzordea eta mendi batzordeak ere jende asko mugitzen du. Beste batzorde batzuetan, jende gutxiago ibili arren, martxa ona dago eta badago mugimendua. Orokorrean, komisioguztiek dute mugimendua.

Ia 102 urterekin ere osasuntsu da Klub Deportiboa?

Bai, hala dirudi, ezta?

“Nire helburua eguna kirol-jarduera bat eginda amaitzea da (korrika, mendia, bizikleta...), bestela zerbait falta zait”

Bai. Zu ere sasoi betean zaude. Kirola egiten denbora luzez jarraitzeko asmoz?

Momentuz, ahal dudan neurrian, kirola egiten jarraitzeko asmoa dut. Erronkak aipatu ditugu lehen, eta nire erronka pertsonala da egunero zerbait egitea. Zerbait hori izan daiteke korrika, mendia, bizikleta... Eguna kirol-jarduera bat eginda amaitzea, bestela zerbait falta zait.

Gaurko helburua bete duzu?

Momentuz ez. Elkarrizketa eta erosketa batzuk direla eta, gerorako laga dut. Arratsaldea ez da oso luzea, baina badago denbora oraindik.





XXX.EDIZIOA

EIBARKO

KIROL

SARIAK

2025

Urtearen amaierak kirol kutsua izan zuen, beste behin, ...eta kitto!-kematen dituen Eibarko Kirol Sarietarako. Aurtengoan 30. edizioa bete du ekitaldiak eta, data berezia aprobetxatuta, beste itxura bat izan zuen galak. Hasteko, aurkezle berriak izan genituen, eta Irati Alvarezen eta Odei Jainagaren freskotasanak goiz atsegina pasarazi zion Coliseon bildu zen publikoari.

Aretoa ia bete egin zen eta bertaratu zirenei eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen. Eta, nola ez, sarituei eta sariak antolatzen laguntzen diguten klub, elkarte eta taldeei, eta baita Sari Berezia ematen duen Eibarko Udalarari ere. Eurak dira hau antolatzearen arrazoi nagusia, eurei esker arnasten baita kirola Eibarren.

2026. urtea kirola eginez eta horretaz gozatzen pasa dezagula!



Maren Cortazar Romero (Lerro-hockey-a), Eneritz Gonzalez Alberdi (Eskubaloia), Pablo Jimenez Guilabert (Errugbia), Ane Feijoo (Saskibaloia), eta Marta Lopez de Gereñu (Futbola).



Aratz Amillategi (Pilota) eta Iñigo Ciarsolo (Tenisa).



Naiala Rodriguez Perez (Jugerra).



Lorena Camiño Aranceta (Bilarra), Ganix Rodriguez (Hiru-txirloa), Francisco Romero (Tiro-olinpikoa) eta Mikel Saenz Gil (Xakea).

Sandra Rocha (Kick boxing-a), Jon Leal Gallastegi (Wu-shua), Achraf Bensliman eta Amina Gourmet (Jiu-jitsua), Hodei Saez Arias (Karatea) eta Eneko Korta eta Federico Cuenca (Judoa)



Ane San Martin (Gimnasia) eta Unax Lobo (Skatea).

Nora Melo (Igeriketa artistikoa), Paula Calvo (Igeriketa), Ekhi Azpilikueta (Surfa) eta Gorka Arregi eta Xabi Varela (Waterpoloa).





Idoia Uruñuela
(Triatloia), Ugaitz
Gartzia (Atletismoa),
Jon Aristi Narbaiza
(Mendia) eta Julian
Eraso (Txirrindularitza).

Hainbat urtetan
herri kirolean
aritu zen Dioni
Kortinaren
senide eta lagunek
kirolari guztien
eta publikoaren
maitasuna eta
txalo beroak jaso
zituzten.



Alex Higuera,
Eibar Triatloi Taldea
(Euskara saria).

Fernando Garcia,
Garajes Garcia
(Sustapen saria).



...eta kitto!-ko lankide eta kirol taldeen
errekonozimendua jaso zuen Jose Luis
Gorostegi kazetariak Kirol Sariak antolatzen
egindako lanagatik.

Arrate Gutierrez (Publikoaren saria).



Mikel Lizarralde
(Sari berezia).





go gorputza
osasuna

**GIMNASIO
JUANITO**

30 urtez zuekin

Ego-Gain Kalea, 11
943 20 83 80
gimnasiojuanito.com





365 EGUN IREKITA goizeko **05:00**etatik gaueko **00:00**etara

- GUZTIZ EKIPATURIKO 900m²-ko gimnasioa
- INGURUNE PAREGABE batean giroituriko zentroa
- MAKINA, MATERIAL ETA EGITURA BERRIEKIN!!!

Etor zaitez probatzera!

Matsaria, 32, 1-B
943 430 987

“Lagunen eta ingurukoen babesa behar dut, baina kirolak ere lagundu dit”

MIKEL LIZARRALDE • 2025eko Eibarko Kirol Sari Berezia



...eta kitto!-k abenduaren 31n banatu zituen 2025eko Kirol Sariak. Urtero bezala, kirol modalitate bakoitzeko kirolari aipagarrienek garaikurra eraman zuten, baina horien guztien artean, bat nabarmendu zen: sari berezia. Aurtengoan, Mikel Lizarralde bereganatu du, kirolari ematen dion esangura azpimarratuz.

Elkarriketaren
BIDEA



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**
Bideoa **YANIRE SAGREDO**

Mikel Lizarralderen bizitza ezin da ulertu kirol barik. Berarentzat kirola terapia da. 2018an, San Blas egunean, San Salvador, Topinburu eta Galdaramiño inguruan korrika egiten zebilela bikoitza ikusten hasi zen eta, ospitalean proba batzuk egin ondoren, esklerosi anizkoitza zuela jakin zuen. Kolpe latza izan zen, baina laster jakin zuen egoerari buelta ematen eta horretarako berebizikoa izan da kirola. Harrezkero, ia gelditu barik dabil, esklerosi anizkoitzarekin kirola egitea posible bakarrik ez, onuragarria ere badela erakutsiz, eta maisuki erakutsi du gainera ‘Nire erreferenteak’ eta ‘Zazpi’ ikus-entzunezkoetan, Mendifilm saria ere eskuratuz. Orain, Eibarko kirol munduaren esker ona jaso du Eibarko Kirol Sari Bereziarekin.

Autoan, baina mendira etorri gara zurekin elkarriketa egitera, inguru hauetan gustura ibiltzen zarela kirolean. Zer ematen dizu hemen inguruan gora eta behera ibiltzeak?

Niretzat mendia terapia da. Denok dugu motxilaren

bat, handiagoa ala txikiagoa, eta niretzat kirola motxila hori arintzeko modu bat da. Mendia terapia da niretzat eta horrela izaten jarraitu dezala. Mendiak bizirik nahi ditugu.

Gaur egun, kirolak nolako tokia du zure bizitzan?

Handia. Esan bezala, kirola terapia da eta noizean behin ihes egin behar dut. Gainera, ihesaren kontzeptua oso barneratuta daukat eta batzuetan larregi ihes egin dudana inpresioa dut. Burua zaintzeko modu bat da, ez bakarrik gorputza, eta arnasa hartu beharra dudanean mendira etortzen naiz. Gainera, batzuetan lagunekin etortzen naiz eta horrek balio bikoitza du.

Kirola nola sartu zen zure bizitzan?

Ez dut esango betidanik izan naizenik kirolaria. Kirolari txarra izan naiz eta, horregatik, lotsa pixka bat ematen dit Kirol Sari Berezia kirolari txar bati eman izana (barreak). Beno, ez dakit kirolari onak eta txarrak dauden, kirola egitea ona da denontzat. Txikitan karatearekin hasi nintzen, baina segituan laga nuen ‘krezederas’ kontuengatik. Foballa ere laga egin nuen, txarra nintzelako. Gero, korrika egiten hasi nintzen.



Ondo gogoratzen dut lehen korrika saioa, 21 urte in-gururekin. Donostiako Paseo Berriari buelta eman nion, kilometro eta erdi, eta ia-ia hil egin nintzen. Harrezkero, pixkanaka-pixkanaka, gero eta korrika gehiago egiten hasi nintzen eta maratoi erdia amaitu nuen, handik maratoina pasa nintzen, eta asfaltoa lagata mendira pasa nintzen. Gaur egun, gurasoek aurpegiatzen didate txikitan ez nuela mendira joan nahi izaten eurekin, baina berriro diot, orain mendia terapeutikoa da niretzat.

Terapeutikoa da, gozatzen duzu, baina malda hauetan sufritu ere egingo da. Zenbat da sufrimendua eta zenbat gozamen? Sufrimenduan gozatu ere egin daiteke?

Ito sentsazio horretan badago plazer puntu bat eta, beti esaten dudan bezala, oxigeno falta dagoenean etortzen zaizkit ideiarri onenak, nire mailan behintzat. Egunerokotasunetik ihes egiteko modu bat da eta oxigeno falta horrekin ondo moldatzen naiz. Egia da urteak aurrera doazela, laster 46 urte beteko ditut, eta zaila da bihotzeko taupadak lehengo mailara heltzea. Orduan, poliki-poliki egiten dut aurrera. Bakoitzak bere

neurria aurkitu behar du. Ez dago onik eta txarrik. Lehiaketatik kanpora gauza asko dago eta norberak bere neurria aurkitu behar du. Neure erritmoari 'traktorismoa' deitzen diot. 'Txipironera' martxan jarri eta aurrera, poliki-poliki.

Batzuetan ez zaizu gertatzen gehiegi sakatzen duzula?

Badago lagun bat gehiegi tira egiten duena, baina batzuetan hori ere behar da, jakinda hori puntuala izan behar dela nire kasuan, ez dela larregiko zerbait izan behar, larregi itoz gero gehiago kostatzen baita buelta ematea.

Inguru hauetan hasi zinen bikoitza ikusten orain dela ia zortzi urte eta gerora jakin zenuen esklerosi anizkoitza zenuela. Kirola egiten konturatu zinen eta, gorrotatu beharrean, kirolari heldu zenion aurrera egiteko. Zergatik?

Beti pentsatu dut kolpe bat jasotzen duzunean toki horretara itzuli behar zarela ahalik eta azkarren, toki edo egoera horri biguna ez hartzeko. Bizikletan Arrate jaisten ia beste aldera joan nintzenean, ahalik eta azkarren saiatu nintzen berriz ere handik pasatzen.



“Gurasoek aurpegiatzen didate txikitan ez nuela mendira joan nahi izaten eurekin, baina orain mendia terapeutikoa da niretzat”

“Kirola burua zaintzeko modu bat da, ez bakarrik gorputza, eta batzuetan arnasa hartu behar dut eta mendira etorri behar naiz”

Hemendik pasatu nintzen bikoitza ikusten hasi nintzen egunean, eta mendira itzuli nintzen lehen aldian Topinburura igo nintzen, poliki-poliki. Obsesio puntu bat eduki ahal du horrek? Bai, baina bakoitzak bere obsesioak eta errezetak ditu egoera zailei aurre egiteko. Nirea hori da, besterik ez dakit. Lagunen eta inguruko enbata behar dut, haiek barik ezingo nuke aurrera egin, baina kirolak ere lagundu dit aurrera egiten. Azkenean, norberak ikustean gero eta hobeto dagoela, batez ere zuloan egon ostean, primeran sentitzen da. **Ondo baino hobeto gainera, diagnostikoa jaso ondoren kirol proba gogorretan parte hartu duzulako (Zegama-Aizkorri, Ehun Milak, Gipuzkoako herri guztiak bizikletan lotu zenituen...). Sasoi betean egon behar zara horretarako. Nola prestatzen zara?**

Borondatez deserosotasuna bilatzen dut, kolperen bat etorriko balitz, aurre egiteko orduan hobeto aurkitzeko, neure burua prest egoteko. Kolpe bat etorri daiteke, gaitz hau ezin delako sendatu oraindik, eta prest egon nahi dut etorkizunean baten bat etortzen bada. Bestalde, egia da gurpil-zoroan sartzen zarela batzuetan. Maratoia egiten duzu eta segituan etortzen zaizu jendea esanez hurrena bikoitza izan behar dela, eta hurrengoan gehiago. Gurpil horretan sartuta egon naiz eta pixka bat arriskutsua izan daiteke norberarentzat, ez dakizulako gelditzen. Beraz, kirola bai, baina neurrian. **Irten zara gurpil-zoro horretatik?**

Ez. Gurpil horretatik irten ez da inor irteten, bota egiten zaituen arte. Gurpil horrek badu bere xarma ere eta ondo dago norbere buruari helburuak jartzea. Nik jarraitzen dut esaten 2028an Nepalera joango naizela. Ez dut inongo barrabaskeriarik egingo, baina bertara joan nahi dut, han egon eta “honaino ere iritsi naiz” esan. Egin nuen lehen erronka Getaria-Zarautz proba izan zen eta lehen helburua irteerara heltzea zen. Zegama-Aizkorri ere poz-pozik nengoen irteeran egote hutsagatik. Lasterketak modu batean edo bestean joango dira, baina irteerara iristea izaten da saririk handiena. Horrek ematen dit pozik handiena, esperientzia hori bizi ahal izateak. Esklerosi anizkoitza duzunean esaten dizute ezin duzula epe luzeko helbururik jarri,

horregatik egiten dit ilusioa horrelako gauzak egin ahal izatea eta hor jarraitzea gerra ematen.

Kirola egiteaz gain, egindakoa ikus-entzunezkoetan jaso duzu. Zer saiatzen zara igortzen?

‘Nire erreferenteak’ oso proiektu berekoia izan zen eta ikasteko balio izan zidan. Beste pertsona batzuek bizitzako kolpeei nola aurre egiten zieten jakin nahi nuen. Bestalde, ‘Zazpi’ dokumentalaren kasuan, nirea kontatzea tokatzen zitzaidala pentsatu nuen. Diagnostikoa jaso berritan, zulo sakonean egon ondoren, asko lagundu zidan Asier de la Iglesia Zumarragako saskibaloiz jokalariaaren esperientzia ezagutzeak. Bu-ruak eztanda egin zidan: esklerosi anizkoitza du eta ez dago gurpildun-aulkian! Bera aulkian ez bazegoen, ni ere, epe motzean behintzat, egongo ez nintzela pentsarazi zidan. Horregatik kontatzen dut nire istorioa: diagnostikoa jasotzen duen beste batek jakin dezala badagoela beste aukera bat. Interneten irakurtzen dugun guztia da “desgaitasuna”, “gurpildun-aulkia” eta “txarto egongo garela berehala”. Nire kasuan, ia zortzi urte pasa dira eta hemen jarraitzen dut. Jendeak jakin dezala aukera hori ere badagoela. Ez da epika saltzea, ez baitut uste ezer epikoa egin dudarik, baina bai erakustea normaltasunean bizi daitekeela eta bizitza aktiboak horretarako laguntzen duela.

‘Zazpi’ dokumentala han eta hemen aurkeztu duzu. Nolako hartu-emana sortu da publikoarekin?

Oso ederra! Mendifilmen proiektatzea, areto handi batean, jendearen goxotasuna jasotzea... Pasada bat da. Orain dela gutxi Donezteben egon nintzen, 2.000 biztanle inguru bizi dira han, eta aretoa erdi beteta zegoen. Gainera, jendeak ekarpen politikak egiten ditu. Horrek ez du preziorik. Egoera oso enpatikoa da bi norabideetan. Iñaki Peña Andresek esan zidan Mendifilmen parte hartzea 8.000 metroko mendia igotzearen parekoa zela eta arrazoia zuen. Gerora etorri dena ederra izan da. Hori Maria emazteak ospitaleetik irtetean esandakoarekin lotzen dut: “Ikusiko duzu, honek oso gauza onak ekarriko ditu”. Momentuan esan nion ez pasatzeko (barreak), baina horrela izan da.



“Ito sentsazio horretan badago plazer puntu bat eta, gainera, oxigeno falta dagoenean etortzen zaizkit ideiari onenak”

“Ez da epika saltzea, baina bai erakustea normaltasunean bizi daitekeela eta bizitza aktiboak horretarako laguntzen duela”



Urbat Urkotronikeko taldeak lehiara itzuliko dira berriz

E.B. Gabonetan atsedena hartu ondoren, berriz dira lehiari waterpolo taldeak. 2. Nazionalen jokatzeko duen gizonezkoen taldeak Colegio Brains taldea hartuko du bihar, urtarrilak 10, 20:15ean, Donostiko Pacho Yoldi kiroldegian. Euskal Herria Ligako 1. Mailako emakumezkoen taldeak, ostera, Leioa B-ren aurka jokatu du zapatuan, 15:40ean, Sakoneta kiroldegian.



Hartzaren Urratsak jarraituko dituzte Deporreko mendizaleek

E.B. GR289 bideari jarraituz, Hartzaren Urratsak deritzon ibilbidea osatuko dute bihar, urtarrilak 10, Eibarko Klub Deportiboko mendizaleek. Guztira, 17 kilometroko ibilbidea da egingo dutena, Bergaran hasi, Intxorta igo eta Arrasaten amaitzeko. Irteera 08:00etan egingo dute eta 17:00etan amaitzea espero dute. Irteeran parte hartzeko, Deporreko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute eta bazkideak ez direnek 20 euro. Izena emateko mendia@deporeibar.com helbidera idatzi behar da.



Patxi Flores eta Markel Segurola irabazle Gabon Kopan

E.B. Gabon Kopa jokatu zen abenduaren 26tik 31ra bitartean, Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordeak antolatuta, Deba Arroko pilota eskoletako benjaminen, alebiren eta infantilen parte-hartzearekin. Guztira, 63 bikotek hartu zuten parte eta 110 partidu jokatu ziren frontoi ezberdinetan (finala Sorluzen jokatu zen, Astelenan PIN-a zegoelako).

Ordezkariei eibartarrei dagokienez, alebirekin A mailan Deporreko Patxi Flores eta Markel Segurolak jantzi zuten txapela. Beste kategorietan, ostera, hemendik kanpora joan ziren garaikurrak.



Ehundaka lagunek esan zioten agur 2025ari San Silbestre lasterketan

E.B. Azken urteetan bezala, ehundaka eibartar elkartu ziren korrika eginaz urteari agur esateko San Silbestre lasterketan. Jai giroan egin zituzten herrian zehar Deporrek prestatu zituen itzuliak, batzuk moztarrotuta ere, eta azken itzulian batzuk erritmoa igo bazuten ere, denek amaitu zuten poz-ozik.



Markezek eta Zenarruzabeitiak dominak lortu dituzte Euskadiko Proba Konbinatueta

E.B. Euskadiko Proba Konbinatueta txapelketa egin zen urtarrilaren 3an eta 4an, Euskadiko Atletismo Federazioak antolatuta. Eibarko Klub Deportiboko Kepa Markez eta Maialen Zenarruzabeitia atletak lehiatu ziren bertan eta dominakin itzuli ziren etxera.

Kepa Markez 2. sailkatu zen gizonezkoen heptatlon proban, 3.073 punturekin, zilarrezko do-

mina eskuratuz. Probaren irabazlea Durango Kirol Taldeko Pablo Martinez de Gereñu izan zen.

Maialen Zenarruzabeitia, bere aldetik, 3. izan zen emakumezkoen jubeniletako pentatlon proban, 2.188 punturekin. Probaren irabazlea C.A. Barakaldo taldeko Claudia Rubia izan zen eta Ostadar taldeko Eider Redondo izan zen bigarren.

Txirrindulari Elkartearen batzarra bihar

E.B. Urte berriaren hasierarekin, Eibarko Txirrindulari Elkartek 2025eko Ohiko Batzarra egingo du bihar goizean, urtarrilak 10. Lehen deialdia 11:00etan izango da eta bigarrena 11:30ean, eta Portaleko areto nagusian egingo da. Hauek izango dira batzarrean landuko dituzten gaiak: 2024ko akta onartzea, bazkideei bidailita; 2025eko jardue-

ren erakusketa; 2026rako jardueraproposamena (lasterketak, ekitaldiak eta mendeurreneko hainbat jarduera); 2025eko mugimendua eta egoera ekonomikoa; 2026rako aurreikusitako aurrekontua; 2026ko lizentziak berritzea; eta eskaerak eta galderak. Bestalde, 2026rako zikloturista lizentzia eskuratzeko elkartetik pasa daiteke dagoeneko.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Alhama - EIBAR (bihar, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Burgos (bihar, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Sporting Gijon - EIBAR B (bihar, 15:45)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Alfaro - EIBAR B (etzi, 17:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

Pasaia - EIBAR C (bihar, 16:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Oiartzun - URKI (bihar, 12:45)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

Zarautz B - EIBARTARRAK (bihar, 15:30)

Erregionaleko 1. maila (gi)

Orioko - URKI B (bihar, 19:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Real Sociedad - EIBAR (etzi, 12:00)

Jubenilen Nazional Liga (gi)

EIBAR B - Alaves B (etzi, 11:30)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Anaitasuna - URKI (bihar, 15:30)

FUTBOL-ZALETUA

- Bergara Pn. - Bar Maren (bihar, 09:00)
- Xania Taberna - Baserri (bihar, 10:30)
- Malape - Adahi Etxegi (etzi, 09:00)
- Kalaka Bs. As. - L. Rueda (etzi, 10:30)
- Atsedena: Garajes Garcia

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

Loyola - E. ESKUBALOA (bihar, 18:00)

Seniorren Euskadiko Liga (gi)

E. ESKUBALOA B - Basauri (bihar, 18:30)

Seniorren 1. Lurraldekoa (em)

EIBAR ESKUBALOA B - Legazpi (etzi, 13:15)

SASKIBALOA

Gipuzkoako 1. Maila (gi)

Etorri Aldapa - ART. JUANTXO (gaur, 16:15)

WATERPOLOA

2. Maila Nazionala (gi)

URBAT - Colegio Brains (bihar, 20:15)

1. Euskal Herria Liga (em)

Leioa B - URBAT (bihar, 15:40)

Kirol albiste gehiago
gure webgunean





Amelia Tiganusen hitzaldia Ipuuruako Merkatu Plazan

S.H. Amelia Tiganus aktibista, hezitzaile eta idazle feministak hitzaldia emango du urtarrilaren 11n, domeka, 11:30ean, Ipuuruako Merkatu Plazan. Topaketaren helburua sexu-indarkeriari buruzko kontzientzia piztea eta gai horiek modu ireki eta zintzoan lantzea izango da, bereziki testuinguru digitalean sortzen diren arrisku eta ondorioak aztertuz. Hitzaldian, Tiganusek teoria feminista eta marko legala uztartuko ditu azterketa kritiko batean, bai ezagutza teorikoetatik abiatuta, bai bere bizipen pertsonaletatik. Antolatzaileen esanetan, jardunaldiak hezkuntza sustatzea eta belaunaldi gazteenak babesteko ekintzak bultzatzea du xede. Ekimenaren bidez, gizartea sentsibilizatu nahi da sexu-indarkeriak gaur egungo gizartean dituen eraginei buruz, eta prebentzioan eta kontzientziazioan oinarritutako ikuspegi bat eskaintzea.



Poesia errezitaldia egingo dute Untzaga gizarte zentroan

S.H. *Poesía... eres tú* Eibarko poesia taldekoek errezitala egingo dute datorren urtarrilaren 16an, bariakua, 18:30ean, Untzaga gizarte zentroan. Sarrera librea izango da.



Joshua Edelmanen jazz afrolatino kontzertua

S.H. Joshua Edelman Quintet taldeak jazz afrolatino kontzertua eskainiko du urtarrilaren 17an, 19:00etan, Coliseo antzokian. Kontzertuak jazzaren bidez kultura eta belaunaldi ezberdinen arteko elkarrizketa ekarri nahi du oholtzara. Proiektuak komunikazioa, sormena eta tradizioaren ezagutza ditu oinarri, eta musikarien arteko errespetua eta ulermena nabarmentzen ditu. Joshua Edelmanen esanetan, jazzak "tradizioa errespetatuz, zintzotasunez eta grinaz jotzea dibertigarria da, eta edonork gozatzeko modukoa".

Emanaldian parte hartuko dute Joshua Edelmanek berak (pianoa eta zuzendaritza), Adrian Zarrabeitiak (tronoia), Ander eta Julen Edelmanek (kontrabaxua), Richard Pachecok (perkusioa), Adrian Alvaradok (gitarra) eta Gonzalo Mugak (flauta). Jazz afrolatinoaren erritmoak eta doinuak entzuteko aukera izango da. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Atalanta Aresen erakusketa

S.H. Urtarrilaren 2az geroztik *Ikusi, entzun eta isildu* erakusketa ikusi daiteke Andretxean. Atalanta Aresen erakusketa honetan, egilea emozioetatik, traumatetik eta indarkeriaren oroitzapenetatik igarotzen da, buztin zuriaren bidez, eta begia memoriaren epizentroa da.



Aurkezpena urtarrilaren 15ean egingo dute, 18:00etan, eta urtarrilaren 30era arte egongo da ikustera joateko aukera.



“Desobedienteak 18/98” antzezlanaren 16an

S.H. Tanttaka Teatroak Maria Goirizelaiaren *Desobedienteak 18/98* antzezlanaren aurkeztuko du urtarrilaren 16an, barixakua, 19:00etan, Coliseo antzokian. Antzezlanak Joxemi Zumalabe Fundazioaren auzia eta 18/98 sumarioaren barruan izandako prozesu judiziala hartzen ditu abiapuntu, eta hortik abiatuta desobedientzia zibilaren historia eta gaur egungo garrantzia aztertzen ditu.

Lanaren zuzendariak Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo dira, eta oholtzan arituko diren aktoreak, berriz, Miren Arrieta edo Aiora Enparantza, Iñigo Azpitarte, Klara Badiola, Kepa Errasti eta Omar Somai. Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Ordutegi berezian zabalduko dute Udal Liburutegia

S.H. Ikasle askok azterketetarako ikasi behar dutela eta, urtarilean ordutegi berezian zabalduko dute Juan San Martín Udal Liburutegia: hilaren 16ra arte, 09:00etatik 20:30era zabalduko dute, astelehenetik barixakura; eta hilaren 18ra arte, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara asteburuetan.



Makis 37 eta Staff taldeen kontzertua gaur Zai-zoin

S.H. Urteko lehen kontzertua antolatu dute Zai-zoi tabernakoek gaurko (barixakua), 19:30ean. Makis 37 eta Staff (argazkian) taldeak arituko dira, bata bestearen atzetik, bigarrenaz ospatuko den Andoitzfest urtebetetze-jaian. Makis 37 (Ermua eta Elgoibar) taldeak rock indartsua egiten du. Julen (ahotsa eta gitarra), Miguel (bajua eta koruak), Gaizka (bateria) eta Alex (gitarra eta koruak) dira taldea osatzen duten kideak, eta iaz kaleratu zuten bigarren diskoa: *Eromenarekin Thesean*. Eta Staff Bilbotik datorren rock alternatibo taldea da, 2024an sortutakoa. Taldekideak oso gazteak dira, baina euren musikaren oinarria 90eko hamarkadako grunge-ak osatzen du, nahiz eta tarteka funk eta hard rock doinuak ere jotzen dituzten.

Gabonetako Marrazki Lehiaketa antolatu du Galiziako Etxeak

S.H. Haurrendako Marrazki Lehiaketaren XXVIII. edizioa egingo da urtarrilaren 11n, domeka, As Burgas Galiziako Kultur Etxean, 16:30ean hasita. Lehiaketa 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta sormena eta parte-hartzea sustatzea du helburu. Lehiaketa hiru kategoriatan banatuko da, adinaren arabera: 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat sari bat egongo da; 6 eta 9 urte bitartekoentzat, hiru sari; eta 10 eta 12 urte bitartekoentzat, beste hiru sari. Ekitaldia amaitzean, parte-hartzaile guztientzat txokolatada eskainiko da, giro goxoan jardunaldia borobiltzeko.



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		7	8	9				4
6			5					
			4	6				5
5	3					8		6
		4				9		
9		8					3	7
2				3	4			
					5			1
4			8	2	5			

SUDOKUA


3	6	5	2	8	9	1	7	4
1	2	4	1	3	6	5	8	7
8	9	1	3	4	7	5	2	6
7	1	8	4	5	2	3	6	9
2	7	3	1	8	6	4	9	5
5	9	1	6	7	4	2	8	3
6	4	3	5	2	7	1	8	9
1	5	7	8	6	3	9	2	4
4	7	2	9	3	5	6	1	8

3	7	8	9	6	5	1
2	5	1	7	6	8	3
8	6	1	3	9	5	7
4	9	5	8	3	7	2
6	8	2	7	4	1	9
1	7	4	2	5	3	6
5	3	9	6	1	8	4
7	2	3	1	4	9	5
9	4	8	5	6	2	7
8	3	5	1	2	6	7
7	9	1	4	5	8	2
2	6	7	3	8	9	5

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			4				3	
8	3		1			7		9
4	2			3	9			5
	4	8	5				1	
	1				7	5	2	
2			3	8			9	1
3		4			1		5	2
	5				4			

Gezien labirintoa



Urtarrilak 9 - 15

BARIXAKUA 9

MUSIKA

19:30 Andoitz Fest (2. edizioa). Makis 37 eta Staff taldeen kontzertua. Zai-zoi taberna.



ZAPATUA 10

URTEKO BATZARRA

11:00 Eibarko Txirindulari Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia 11:30ean). Portalea (areto nagusia).

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30-20:30 Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-ren bo-noarekin). Astelena frontoia.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gun e irekia. Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 11

HITZALDIA

11:30/13:30 "Juventud, Internet y violencia sexual: ¿Quién gana?". Hizlaria: Amelia Tiganus aktibista, hezitzaile eta idazle feminista. Sarrera librea. Ipuruako Merkatu Plaza.



MARRAZKI LEHIAKETA

16:30 Gabonetako Marrazki Lehiaketa, haurrentzat (2-12 urte). Amaieran txokolate-jana, parte-hartzaile guztientzat. As Burgas Galiziako Etxea.



KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gun e irekia. Ipurua kiroldegia.

MARTITZENA 13

SOLASALDIA

10:30/12:00 Berriketan ikasi (tertulia). Ikasten-ek antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

ABESBATZA

18:30/19:30 Adin guztientzako. Ipurua Merkatu Plazan.

EGUENA 15

HITZALDIA

10:00/12:00 "Qué se esconde detrás del telón", Imaz y Calvoren eskutik. Ikasten-ek antolatuta. Sarrera librea. Portalea.

BILERA IREKIA

19:30/20:00 Ipurua Merkatu Plazan.

ERAKUSKETAK

Urtarrilaren 10era arte

Maite Arriagaren marrazki erakusketa. Topaleku.

Urtarrilaren 11ra arte

Eibarko Klub Deportiboaren Argazkilaritza Taldearen erakusketa kolektiboa. Portalea.

Urtarrilaren 30era arte

"Ikusi, entzun eta isildu" Atalanta Ares-en zeramika erakusketa. Andretxea.

Ostailaren 1era arte

"Errobera artean". Eibarko Armagintzaren Museoa.

Eskualdeko Agenda

MENDARO

KONTZERTUA

9an (BARIXAKUA)

21:30 San Agustin

kulturgunea

Adriano Galanteren
kontzertua

ZINEA COLISEO



“Rondallas”
DRAMA. KOMEDIA.
2025/Espainia /112’
Zuzendaria: Daniel Sánchez Arévalo
Aktoreak: Javier Gutiérrez, María Vázquez, Judith Fernández
Komedia dramatikoak. Musika.

1 ARETOA

- 10an: 17:00
- 11an: 17:00

ANTZOKIA

- 10an: 19:45, 22:30
- 11an: 20:00
- 12an: 19:30



“Keeper”
THRILLER. BELDURRA
2025/AEB/99’
Zuzendaria: Osgood Perkins
Aktoreak: Tatiana Maslany, Rossif Sutherland, Kett Turton, Erin Boyes
Naturaz gaindikoa.

1 ARETOA

- 10an: 19:45, 22:30
- 11an: 20:00
- 12an: 19:30



“El extranjero”
DRAMA.
2025/Frantzia/122’
Zuzendaria: François Ozon
Aktoreak: Benjamin Voisin, Rebecca Marder, Pierre Lottin
Krimena. Drama judiciala/ Abokatuak

2 ARETOA

- 10an: 17:00, 19:45, 22:30
- 11an: 17:00, 20:00
- 12an: 19:30



“200% wolf. Pequeño gran lobo”
ANIMAZIOA. ABENTURAK.
2024/Australia/97’
Zuzendaria: Alexs Stadermann
Txakurak/Otoak. Sekuela

ANTZOKIA

- 10an: 17:00
- 11an: 17:00



Camilo Alvarez Otero

7. URTEURRENA
2019/01/12

“Zu joan zara, baina ZUREGANAKO GURE MAITASUNA ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko zuk izandako ilusioa eta bizipoza”

- ZURE EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBAK -



FUNEUSKADI

Grupo Asntea



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA

Funeuskadi



TANATORIO CREMATARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **UNAX!**
Gure mutil haundia, 11 urte bete dozulako. Etxekuen eta, batez be, Anaitzen partez.



Zorionak **MARKEL!**
Urtarrilaren 2xan urtebete egin zenduan. Zu zara etxeko altxorra. Zorionak familia guztiaren partez eta musu potolo bat.



Zorionak **LIER!**
Hilaren 2xan 6 urte-txo bete zenduazena eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaitugu.




Zorionak **IZASKUN!**
Urtarrilaren 6xan urtiak bete dozuz eta. Musu haundi bat famelixa eta lagun partez.



Zorionak **LUR!**
Abenduan 24an 9 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be Naike, Oinatz eta Bernaten partez.



Zorionak **ALICIA!**
Urtiak bete dozuz eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak tio **IÑIGO** (urtarrillak 5) eta **IKER** (urtarrillak 11)! Ondo ondo ospatu zeuen urtebetetziak. Musu eta besarkada haundi bana famelixaren partez.



Zorionak **JULENE** eta **NAIKARI**
G. Guruzeta zeuen seigarren urtebetetzian amatxo eta etxeko guztien partez.

BARIXAKUAK JOLASIAN, BUELTAN DA!



Urtarrilak 16: Txaltxa Zelain
Urtarrilak 23: Torrekuako parkean
Urtarrilak 30: Urkizuko parkean

17:00-18:00

Umeentzat jolasak, doan

BERBETAN

eta kitto!
euskaraz alkartea

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskakerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
Gela bat hartuko nuke alokai- ruan. 631058768. Oscar.

4. LANA
4.1. Lan bila
Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko arratsaldean. Baita larunba- tetan ere. Esperientzia, erre- ferentziak eta soziosanitario ziurtagiriarekin. 604120104.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, asteburu eta jai egunetan. Etxe edota ospitalean. 613287661.
Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, edozein egu- netan. Etxe edota ospitalean. 632768653.
Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Etxean interna bezala edota astebu- rutan, baita ospitaletan ere. 642852854
Emakume gaztea eskaintzen da umeak eta nagusiak orduka zaintzeko. Baita maskotak ere. 688894523. Linda
Entrenamendu pertsonal fisi- koak eta futbolekoak egiteko pertsona eskaintzen da. Nata- lia Wilches. 688894523
Emakumea eskaintzen da or- duka nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Ziurtagi- riarekin eta erreferentziekin. 667060292.

- Emakumea eskaintzen da orduka edo interna moduan zaintza lanak egiteko, eta bai- ta garbiketa lanak egiteko ere. 631584186.
- Emakumea eskaintzen da or- duka edo jardunaldi osoan umeak edo nagusiak zaintze- ko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. 614087544.
- Gizona eskaintzen da sukalda- ri laguntzaile bezala lan egite- ko, eta baita eraikuntzan lan egiteko ere. 643317266.
- Gizona eskaintzen da pintore moduan lan egiteko. 20 urteko esperientziarekin. Eraikuntzan peoi moduan aritzeko ere. 634155697. Javi.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko. 602051567.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan astelehene- tik ostiralera umeak zaintze- ko. 658168092.

4.2. Langile bila
Emakumea behar da Eibarko etxe batean interna moduan lan egiteko. Ziurtagiri soziosa- nitarioarekin. 685531040.
Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: horni- kuntza@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
Pintura klaseak ume edota helduentzat. Umeak; 4 urtetik aurrera, helduak; edozein adinetakoak. Informazio gehiago www.maitearriaga.com . 668 51 68 93
DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko auke- ra. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.1. Salgai
Logela osoa salgai: ohea (1,35), armairua, xifonierra eta mesanotxea. 600 66 72 65 (Nerea)



Cambridge Assessment
English

Authorised Exam Centre (ES 438)

2026ko MARTXOKO AZTERKETAK

EIBAR / DURANGO

➔ **MATRIKULAZIO EPEAK:**
URTARRILAREN 7etik 23ra

Azterketa	Data	Tasak
PET FS	MARTXOAK 21, LARUNBATA	112 €
FCE	APIRILAK 18, LARUNBATA	200 €
FCE FS	MARTXOAK 21, LARUNBATA	200 €
CAE	MARTXOAK 21, LARUNBATA	210 €

Informazio eta matrikulak hemen:

	Parlance	943 770683
Arrasate	Idiomaster	943 790784
Bergara	Espolon School of English	943 760353
	Link Idiomas	943 203959
Eibar	Target Schools of English	607 833 613
Ermua	Akerlei	943 176632
	Key Academia de inglés	943 743044
Elgoibar	ILS	943 744040
Oñati	Sounds Great	943 782091
	English Square	648 268 206
Deba	North Street English	652 448 646
Durango	Ibaizabal Ikastola	94 6215877
Markina	Lea Artibai Ikastetxea	94 6169002
Elorrio	Ontrack Hizkuntza	94 6584673
Berriz	Speak up	94 6225294
Zumaia	Golden Gate	943 865020
Mutriku	Gogoz	943 604358




FISIOTERAPIA
ZENTRUA

Ane Mendiá
970 kol. zkia.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENPORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendiá@hotmail.com



EIBAR
Kirolak
Deportes

DESKARGATU GURE APP BERRIA

- Instalakuntzen inguruko informazioa
- Ikastaro eta abonuen informazioa
- Erreserbak
- Alta eta baja kudeaketa



EIBAR KIROLAK



GET IT ON
Google Play



GET IT ON
App Store